

‘Escuela & Finanzas’ programaren promozioa OINARRIAK

1. Erakunde sustatzaileak

Kutxabank SA
IFZ A95653077
On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 30-32
48009 BILBO

2. Sustapen Eremua

Promozio hau Vital-Kutxabankeko ‘Escuela & Finanzas’ eskola-programan parte hartzen duten gazte guztiei zuzenduta dago eta, jardueran mintzatu ziren heziketa edukiei buruzko galdetegia betetzen duten gazteei. Galdetegia betetzeko www.cajavital.es webera jo beharko duzu (Linea Joven atalean aurkitu ahal izango duzu), edo Vitalnet Joven-era jo beharko duzu (erakundearen banka elektronikoa).

Jarduera hori alde zuzenetik ikastetxeekin hitzartu egin da. 2012. urteko otsailaren azken astearren eta martxoaren zehar asteartetan eta ostegunetan egiten da, goizez. Kanpaina honetan parte hartzen duten gazteek web gazteak eskatzen dituen datuak emango dituzte, adieraziko diren datuen artean.

3. Sustapenaren Jardunbidea

Erantzun ezazu galdera-sorta hau Vital-Kutxabanken web gaztearen bitartez, edo Vitalneten otsailaren 28tik maiatzaren 14a bitartean (biak barne). Eskatutako datuetatik eta galdera-sorta bete ondoren, galdera-sortako itaun guztiak ondo erantzuten duten gazte guztiei zenbaki bana emango zaie galdera-sorta bete duten ordenaren arabera, eta zenbaki horrekin zozketan parte hartuko dute.

Kanpaina bukatzerakoan galdera-sortako itaunak zuzen erantzun duten gazteekin zerrenda bat osatuko da, eta horien artean Ipad Wi-Fi 16GBeko 15 taula zozketatuko dira.

Pertsona bakoitzari sari edo artikulu bakarra emango zaio. Eta pertsona berak galdera-sorta ugari betetzen baditu soilik bat hartuko da kontuan. Zerrenda horiekin, Alfredo Perez Avila notario jaunaren aurrean, 2012ko maiatzaren 21ean zozketa egingo da. Zerrenda bakoitzeko zenbaki bat aterako da, lehenengo saridunaren zenbakia hain zuzen. Saritutako zenbaki horretatik aurrera, eta segida bat jarraituz, gainontzeko sariak eta gaiak emango dira. (Zerrenda bakoitzaren segida, zerrenda bakoitzaren partaideen eta zozkatuko diren sarien/gaien kopuruaren arabera erabakiko da).

Vital-Kutxabanke saridunen zerrenda gazte webean bertan argitaratuko du.

Pertsona bakoitzak sari edo gai bat baino ez du jasoko. Pertsonaren bat bi zerrendetan badago, eta saria bi zerrendetan eskuratzen badu, bi sarietatik bat aukeratu egin beharko du. Eta, pertsonaren bat galdetegia behin baino gehiagotan betetzen badu, bete den azkenengoa baino ez da kontutan hartuko.

Momentu horretatik aurrera, Vital-Kutxabanke saridunen datu pertsonalak (izen abizenak) eta irudia erabili ahal izango ditu, erakundearen webean agertuko den "Saridunen zerrendan" argitaratzeko asmoz.

4. Sariak

Zozketan parte hartzeko: webean sartu eta datuak betetzeaz gain, adierazitako parte-hartzeko oinarriak bete egin beharko dituzte. Jarraian agertzen dena zozkatuko da:

Ipad Wi-Fi 16GBeko 15 taula

5. Sustapen epea

Kanpaina 2012ko otsailaren 28an hasi eta 2012ko maiatzaren 14an bukatuko da, biak barne.